48 04
LEMOIZEKO ZENTRAL NUKLEARRA



Lemoizeko zentrala 1997an, oraindik eraitsi gabe. Arg. Mikel Arrazola. CC BY-3.0-ES 2012/EJ-GV/Irekia-Gobierno Vasco/ Mikel Arrazola'.

Basordas senadia Bizkaiko Lemoiz udalerrian kokatuta dago. Hura 1972. urtean betetzen hasi zen, Iberduero enpresak bertan zentral nuklear bat eraikitzeko asmoz. Hura exekutatzen hasi zen atzera bota zelako Debako (Gipuzkoa) eta Ispasterko (Bizkaia) zentral nuklearrak Euskal Autonomia Erkidegoko egungo lurraldean eraikitzea.

Zentralak bi Westignhouse erreaktore zituen (Lemoiz I eta II), 930 Mw bana, presio uraren bidezko hozketa motakoak (PWR).


Zentrala ia osorik eraikita zegoenean –erreaktoreetako bat erregaia jasotzeko zain zegoen funtzionatzen hasi ahal izateko- ezkerraldeko alderdi batzuen eta ekologisten elkarteen presioak, indarkeri giro batean, zentrala martxan jartzea eragotzi zuten.

Energia eskumenak Eusko Jaurlaritzari transferitu zitzaizkionean, horrek obrekin jarraitu nahi izan zuen enpresa misto baten bidez (publiko/pribatua). Hala ere, presioak gogorregiak izan ziren eta obrak behin betiko gelditu ziren.


1982. urtean, Gobernu Zentralak esku hartu zuen eta 1984ko martxoaren 28an Gobernu berriak luzamendu nuklear orokor bat dekretatu zuen. Horrek eraikitzen ari ziren zentral nuklear guztien obrak gelditzea eragin zuen. Enpresa hidroelektrikoek kalte-ordaina jaso zuten, lanak eten egiteagatik. Horiek kanon bat kobratu zuten energia elektrikoaren ordainagiriaren bidez, hainbat hamarkadez.

Urte askoz, zentrala geldirik egon zen, baina hasi ziren pixkanaka eraisten; baita bertan energiari buruzko parke tematiko bat eraikitzea edo ziklo konbinatuko zentral elektriko bilakatzea ere pentsatu zen.

Hura eraistea oso garestia denez eta beste erabilerak ematea oso konplikatua denez, industria hondakin gisa kontserbatzen da.




Lemoizeko zentrala, barrutik eraitsi ondoren.



Ortoargazkia 1965. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi; Bizkaiko Foru Aldundia.

UTM 30N ETRS89 X: 510257 m Y: 4808971 m.

"Basordas senadia" argi ikusten da, Zentrala eraiki baino lehen.



Ortoargazkia 1990. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi; Bizkaiko Foru Aldundia.

Zentrala, I. taldea erabat amaituta zegoenean, erregai nuklearra jasotzeko zain dago, inoiz iritsi ez zen arren. Erreaktoreen bi ontziak ikusten dira, eta baita zentrala sistema elektrikora konektatzeko prestatutako transformazio parkea ere.



Hiri ortoargazkia (20072009. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi;

Zentrala, eraitsita. Ikus daiteke elementu metaliko guztiak falta direla eta zulo ugari daudela, nondik makina guztiak atera baitiren eraiste orokorreko prozesuan.